



Erresuma

Batuko

ingurumen-
merkatuaren analisia

Aukerak identifikatzea

EUSKADI
BASQUE COUNTRY

aclima
Basque Environment Cluster

BasqueTrade
& Investment
Agencia Vasca de Internacionalización
Euzkoabizkaitasuna Euzko Agentzia

GRUPO
spri
TALDEA

EUSKO JAULABARITZA
GOBIERNO VASCO
BASQUE GOVERNMENT

LABURPEN

EXEKUTIBOA

Azterlan honen bidez zehaztu nahi dira Erresuma Batuko ingurumen-merkatuaren ezaugarriak eta tamaina eta, horrekin batera, identifikatu nahi da zeintzuk diren Euskadiko ingurumen arloa osatzen duten mota desberdinetako agenteei aplikatzeko moduko aukera-ildoak.

Ingurumen-sektorea aztertzean kontuan hartu dira sei balio-kate garrantzitsuenak, hauek hain zuzen: *Uraren ziklo integrala, Airearen kalitatea (airea eta kutsadura), Hondakinak, Lurzoru kutsatuak, Ekosistemak eta Fabrikazio ekoeraginkorra eta Ekodiseinua.*

Ingurumen-merkatuaren balioari dagokionez, Erresuma Batukoa munduko 5. merkatu handiena da, eta bigarrena Europan, Alemaniaren atzetik. Zenbakiei begiratuta, 2020an 54,4 mila milioi dolarreko balioa izan zuen.

Kateei dagokionez, lehentasuna eman zaie merkatuan intzidentzia handiena dutenei eta, hortaz, enpresentzat aukera interesgarri gehien eskaintzen dituztenei, lehen postuetan daudelarik **Uraren ziklo integrala** eta **Hondakinen kudeaketa**.

Brexitaren ostean onartutako **“The Environmental Act 2021”** ingurumen-araudi berriak ordezkatzeko du Ingalaterran eta Galesen orain arte indarrean egon den Europako ingurumen-araudia. *The Environmental Act* hori ingurumen arloko legeria berritzaileenetako bat da, EBk berak finkatutakoak baino helburu anbiziotsuagoak markatzen ditu eta konpromisoa hartzen du ekonomia zirkularreko eredu taranzko trantsizioarekin.



Erresuma Batuen lurralde-batasun konplexua dela medio, batasuna osatzen duten lau herrialdeetako bakoitzean legeria desberdin bat aplikatzen da ingurumen arloan, eta horregatik hain zuzen arauak finkatzeko garaian kontuan hartu behar dira gobernu bakoitzaren berezitasunak. Azterlan honetan arreta berezia emango zaie **Ingalaterra eta Galesi**, herrialde horietan bakarrik aplikatzen den “Environmental Act 2021” lege berriaren garrantziagatik, eta baita ere euskal enpresen gaitasunekin hobeto lerrokatzen diren eskualdeak dituztelako. Lege berri hori sekulako mugarria da Ingalaterra eta Galesko ingurumen-sektoreetan, eta ingurune naturala berreskuratzeko lege-helburu argiak ezarri ditu lau esparru garrantzitsutan: **airearen kalitatea, bioaniztasuna, ura eta hondakinak.**

“Hondakinen kudeaketa” eta “Uraren ziklo integrala” balio-kateak dira Erresuma Batuko ingurumen-sektore garrantzitsuenak, baina **oso egitura desberdinak dituzte. Hondakinen sektoreak 14.000 milioi libera inguruko urteko negozioa du (merkatuko balioa, berriz, 54.000 milioi USD ingurukoa da)**, eragile ugari osatzen dute eta, merkatu nazionalari zerbitzua emateaz gain, lehiakorra da nazioartean. Uraren sektorea prezioek erregulatzen dute eta tokiko merkatua zerbitzatzera bideratua dago. Oso kontzentratuta dago sektoreak bizi izan duen pribatizazio eta finkatze prozesu sakonaren ondorioz. Bestalde, bera da inportazio bolumen handieneko sektorea (8.400 milioi USDko inportazioak egiten ditu, ingurumen-sektorearen inportazioak guztira 19.000 milioi USDkoak direlarik). **Ingurumenaren kutsadura** izeneko katea gero eta garrantzitsuagoa bihurtu da azken urteotan, bai araudiek ezarri dituzten betebeharrengatik, bai herrialde osoan ugaritu diren “Aire Garbiko Guneengatik”.

Inportazioen ikuspegitik, Alemania da Erresuma Batuen bazkide garrantzitsuen eta gehien inportatzen duen herrialdea balio-kate guztietan, uraren zikloarenean izan ezik, arlo horretan Txina —bigarren inportatzaile handiena— baita liderra, alde handiarekin. Hirugarren inportatzaile nagusia AEBak dira, eta hiruren artean inportatzen dituzte ingurumen arloan inportatzen diren produktu

guztien % 70.

Intereseko eskualdeak zehaztuz, eta alde batera utzita Londres sobera merkatu handia izateagatik, Ingalaterran aipatzekoak dira Manchester, Liverpool, Newcastle eta Birmingham, eta Sheffield eta Leeds hirien ingurune industrialak. Galesen, aldiz, Cardiff nabarmentzen da.

Environmental Agency agentziak hiru helburu estrategiko finkatu ditu 2020/2025 urteetarako plangintzan, eta hiru helburu horietara bideratu dira inbertsioak. Planak epe luzeko hiru helburu finkatu ditu: nazio erresiliente bat klima aldaketarekiko; aire, lur eta ur osasuntsuak; eta hazkunde berdea eta etorkizun jasangarria. Aipatzekoak dira klima aldaketaren aurkako borrokarekin lotutako inbertsioak, **Britainia Handiak kosta luzea duelako eta uholdeak** izaten dituelako **aldizka**. Aurreikusten da bi arlo horietan milaka milioi liberako inbertsioak egingo direla. Bakarrik uraren sektorean **50.000 milioi libera (totex)** baino gehiagoko inbertsioak egingo dira **2020-2025 urteen artean, hots, aurreko epealdian baino % 13 gehiago**. Hondakinen kudeaketa arloan, berriz, 2021ean hartu zen 2040rako zero isuri garbira iristeko konpromisoa, eta konpromiso hori betetzeko **10.000 milioi liberako inbertsioak egingo dira birziklapenerako azpiegitura eta teknologia berrietan**, arreta berezia eskainiz metano emisioak atzitzeko teknologiei (helburua: zabortegetan % 85 metano gehiago atzitzea 2030erako). Era berean, aipatzekoa da **hondakinen balorizazio energetikorako lantegietan inbertsioak egiteko paketea** (320 milioi libera). Esparru zabalago batean, kostak babesteko programarekin eginiko inbertsioak bikoiztu egingo dira 2021-2027 urteen artean, 5.200 milioi liberara iristeraino.

Ari dira agertzen, beraz, merkatuko hainbat joera zerikusia dutenak birziklapen prozesuen **hobekuntza teknologikoarekin**, eta baliabide hidrikoen nahiz partikula kutsagarrien emisioen monitorizazio eta kontrolarekin. Era berean, aipatzekoak dira berrikuntzarekin eta digitalizazioarekin lotutako ekimenak, bereziki bi kate garrantzitsuenetan (hondakinak eta uraren

ziklo integrala), zeintzuen ondorioz aukerak sortuko baitira sektoreko startupentzat eta oinarri teknologikoko enpresentzat. Uste izatekoa da ingurumen-araudiak ezarriko dituen zuzentarauekin Ingalaterra eta Galeseko tokiko agintaritzak behartuagoak aurkituko direla euren inguruneetako ingurumen jarduna hobetzera. Berrikuntza arloan aipagarria da halaber **Kostako Erresilientzia Berritzeko Programa, 200 milioi libera bideratuko dituen proiektu pilotuak egiteko**, eta **“Ofwat Berrikuntza Funtza”, 200 milioi liberako** aurrekontua

duen programa aitzindari bat berrikuntza eta digitalizazioa bultzatzeko sektorean.

Merkaturako sarbideari dagokionez, kontuan hartu beharko dira **Brexitaren ostean sortu diren zailtasun gehigarriak**, esaterako EBtik esportatzen diren produktuei muga-zergen salbuespena aplikatzeko jatorri-araua. Erresuma Batuko merkaturak beti izan da irekia, dinamikoa eta atomizatua, joera handia izan duena atzerriko ondasun eta produktuak erosteko, eta bertan lehiatzeko ezinbestekoa izango da apustu teknologiko, finantzario eta komertzial gogor bat egitea.



Alameda Urquijo, 36 5ª Planta Edificio Plaza Bizkaia
48011 Bilbao info@basquetrade.eus
(+34) 94 403 71 60